

ZINEUSKADI 2025

“ZINEMA EUSKARAZ” PROGRAMA

“Aretoetan eta zirkuitu alternatiboetan euskarazko filmen merkataritzako estreinaldiak bultzatzeko ekimenak laguntzeko programa”

1.- ZINEMA EUSKARAZ programa

ZINEUSKADI Elkartearen bidez, euskarazko filmen eskaintza bultzatu nahi da EAEko merkataritzako aretoetan eta zirkuitu alternatiboetan eta, horretarako, laguntza programa bat eratu da; 2025an merkataritza aretoetan eta zirkuitu alternatiboetan (fikzioa, dokumentala eta animazioa) euskaraz bikoiztu edo azpigitulaturako estreinaldiak sustatzea helburu duena.

Ez dute laguntzarik jaso ahal izango "X" gisa kalifikatutako filmen estreinaldiek, zinematografiaren eta ikus-entzunezko sektorearen sustapenari eta promozioari buruzko 2001eko uztailaren 9ko 15/2001 Legeko 10.3. artikuluari jarraiki.

2.- Onuradunak.

Edozein enpresek, profesionalak eta/edo ikus-entzunezko sektorearekin lotutako elkartek laguntza horiek jaso ahal izango dituzte.

3.- Laguntzen helburua eta kuantifikazioa.

Laguntzak euskarara egingo diren bikoizketetara edota azpigitulazioa egitera, kopiak egitera eta euskarara bikoiztu edo azpigitulaturako bertsioen promoziorako bideratuko dira. Gehinez, **3.000** euro bideratuko dira, beti ere gastuen %100a ez badu gainditzen. Estreinaldia non-theatrical-a bada, sustapenerako zenbatekoa ez da ordainduko.

ZINEUSKADIk, EiTBrekin sinatutako hitzarmena baliatuz, pelikularen euskarazko bertsioaren estreinaldia indartzeko konpromisoa hartzen du EiTb etxeko medioetan (HIRU3 Kluba, Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Gaztea, Radio Vitoria, ETB1, ETB2, Eitb.eus) sustapen eta publizitate kanpaina eginez.

Proiektu bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa zehazteko, proposamen bakoitzari beharren arabera sistema bereizgarria aplikatuko zaio.

4.- Eskerak, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskerak aurkeztu beharko dira:

- 1) Urtarrilaren 31tik abenduaren 31ra.

Balorazio batzordeak, eskaeren behin betiko proposamena, eskaerak jaso ahala sortuko du beti ere izenburu bakoitzaren estreinaldi data ezberdinak kontuan izanda.

Eskerak, filmen proposamenekin, I, II eta III eranskinak, ZINEUSKADiko zuzendaritzara bidali beharko zaizkio, deialdiko eranskinetan eskatutako dokumentazioarekin batera, helbide honetara:

ZINEUSKADI
TABAKALERA 3. solairua
Andre Zigarrogileen Plaza, 1

20012 Donostia-San Sebastián edo posta elektronikoko bidez: info@zineuskadi.eu

5.- Eskaeren analisisia eta ebazpen-proposamena.

Balorazio batzordeak proposamen bakoitza aztertuko du eta ebazpena ondorengo ataletan adierazitako irizpideen aplikazioan oinarrituko da.

- a) Familiako publikoari zuzendutako ekimenak, bereziki haurrak baloratuta: % 60 arte.
- b) Produktuaren aurreikus daitekeen merkataritzako inpaktua. Xede horretarako, besteak beste, honako hauek hartuko dira kontuan: dagokion lanak jatorrizko herrialdean eta jaialdietan izandako arrakasta: % 20 arte.
- c) Gero, filma areto txikietan ikusteko aukera izatea, eta banatzaileak emanaldi horiek egiteko duen erraztasuna, euskarazko bertsioaren DVDaren eta BRren kopia bati esker: % 20 arte.

6.- Balorazio-batzordearen osaketa.

- a) ZINEUSKADiko presidentea edo bere eskuordetza.
- b) Zinema Euskaraz programaren erabaki-batzordeko bi ordezkari; EZAeko (Euskal Erakusleen Elkarte) pertsona bat eta elkarteetako beste pertsona bat, akta ofizialaren bidez eta horretarako bereziki egindako deialdiaren bidez izendatua
- c) ZINEMA EUSKARAZ programako koordinatzailea.

7.- Ebazpena.

Behin balorazio batzordeak proposamena onartuta eta, honen ebazpen bidez, interesatutakoei filmen proposamenak aurkeztu eta gehienez 5 eguneko epean jakinaraziko zaie.

8.- Diru-laguntzen ordainketa honela izapidetuko da:

Laguntzaren % 100a, diruz lagundutako jarduerari dagozkion fakturen aurkezpenarekin justifikatuta eta dagozkien ordainagiriekin.

9.- Laguntzen bateragarritasuna.

Ezingo dute laguntzarik eskuratu EITB koproduktore elkartua duten proiektuek, ez eta EITBk euskarazko bertsioaren emisio-eskubideak erosi dituen proiektuek.

EITBk euskarazko bertsioaren emisio-eskubideak soilik eskuratu dituen kasuetan, ZINEUSKADIk kopiak zinema aretoetan estreinatu ahal izateko beharko duen formatu digitala sortzeko gastuak soilik lagunduko ditu.

Halaber, ezingo dute laguntzarik eskuratu, Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzetan jatorrizko bertsioa euskarazko bezala markatu duten proiektuek (ekoizpena, finantzaketa, gidoi sorkuntza, etab.)

Laguntzak xede bereko beste erakundeek emandako laguntzekin bateragarriak izango dira, diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketarik ez dagoenean, betiere.

Hori gertatuz gero, deialdi honen laguntzaren zenbatekoa txikituko da dagokion mugaraino, gainfinantzaketa hori gerta ez dadin.

Sinaduran dagoen datan eta lekuan,

ZINEUSKADI Elkarteko presidentea
Aitziber Atorrasagasti Calcedo